

3.a	2. JARDUERA FITXA	ADIERAZPEN FUNTZIONALA	
------------	----------------------------------	-------------------------------	---

EZAGUTZAK :	MAILA :	GAITASUNAK :
Adierazpen funtzionala	2 "badakit aipatzen"	- Objektu teknikoak bete behar dituen funtzioak adierazi eta grafikoki deskribatu.
Estimatze irizpideak	2 "badakit aipatzen"	- Funtzio baten edo batzuen estimatze irizpideak definitu.
Bortxak	3 "badakit egiten"	- Bete behar diren bortxak zerrendatu. - Hautatutako bortxa batzuentzat, diseinatu nahi den objektuak bete behar duen maila definitu.
Kargen kaiera	2 "badakit aipatzen"	- Objektu teknikoaren baldintza agiri laburtua idatzi edo osatu.

Oinarri bateratua

3	Zientzia eta teknologia desmartxa erabili	Arrazoitu, argudiatu, desmartxa esperimental edo teknologikoan sartu. Segitu desmartxa, lortu emaitzak aurkeztu, hizkera egokian komunikatu.
----------	--	---

1- Eskaeraren deskribapena

Ikusia izan den bezala beharra aztertzean (testua berrikus), helburua da energia elektrikoa ekoizteko aterabide bat hautatu eta garatzea usaiko energia iturrien erabilera (energia fosila eta nuklearra) murrizteko.

Haizearen bidezko energia ekoizteko gailu bat diseinatu beharko duzu zure lankideekin, planoetatik hasiz prototipoa eraiki arte.

Hautatutako aterabidea jendeen eta ondasunen errespetatzeko arauen arabera egin izan beharko da, kolegioko baliabideak erabiliz.

2- Baldintza agiria (edo baldintzen bilduma)


Objektu teknikoari doakion **baldintza agiri funtzionala** osatu beharko da (*cahier des charges fonctionnel* frantsesez) : dokumentu honek beharra adierazi behar du, produktuak bere bizi zikloan bete behar dituen zerbitzuak eta bortxak funtzioen bidez zehaztuz.

3- Beharra definitu

Lehen iturri fitxako adibidea aztertu eta (trotineta elektrikoaren azterketa funtzionala), aerosorgailuaren "**mamu adarduna**" osatu :

Nori eskaintzen dio zerbitzua ?

Zeri eragiten dio ?




4- Zerbitzu funtzioak definitu

4-a Funtzio nagusia : eskema osatu.



4-b Aerosorgailuaren "olagarro diagrama"

Lehen iturri fitxako informazioak baliatuz (funtzioei buruzkoak eta trotineta elektrikoaren, olagarro diagrama) eta azpi honetan zerrendatuak diren funtzioak hartuz, **aerosorgailuaren olagarro diagrama** hau osatu :



FP1 : elektrizitatea sortu haizearen bidez

FC1 : haizearen energia zinetikoa energia elektriko bihurtu

FC2 : teknologia gelako materialarekin egingarria

FC3 : mantentze erraza ahalbidetu

FC4 : egonkorra eta lanjerrik gabekoa izan

FC5 : ingurumena errespetatu behar

5- Funtzioen irizpideak eta maila

Objektu teknikoak bete behar dituen funtzioen zerrenda.



Bete behar diren funtzioak zehaztu errespetatu behar diren estimatze irizpide ezberdinak identifikatuz.



Irizpide bakoitzarentzat lortu behar diren mailak xeheki zehaztu.



Funtzioak	Irizpideak	Mailak
FP1 : elektrizitatea sortu haizearen bidez	- Energia elektrikoaren kargatzea eta metatzea -	- 12 V-ko bateria DC - karga erregulagailua 12 V
FC1 : haizearen energia zinetikoa energia elektriko bihurtu	- Haizearen energia zinetikoa - Mugimendu transmisioak - Energia elektrikoa - Orientazioa	- - 580 mm-ko 3 beso - Uhala 168 mm - 32 hortzeko txirrika primarioa - 16 hortzeko txirrika sekundarioa - Sorgailua 200 V DC - - buztana
FC2 : teknologia gelako materialarekin egingarria	-	- Teknologia gelako tresneria
FC3 : mantentze erraza ahalbidetu	- Pieza desmuntagarriak	-
FC4 : egonkorra eta lanjerrik gabekoa izan	- egonkortasuna - zurruntasuna	- masta euskarria 500x500x22 - 4 tirante (tenkagailuak-kateak)
FC5 : ingurumena errespetatu behar	-	- Material birziklagarria

Taula hau osatu zerrenda honetan dauden elementuak toki egokian emanaz :

*Abisak, azkoinak, zirrindolak, buloiak, bridak - Materialen izaera - Tresnak -
1,10 m diametroko errotoarea - Korrontearen erregulatzea - 360°-koa*